


## Puntako toreatzaileak

Sanjoanetako zezenketak aurkeztu dituzte; 24an, errekortariak ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-06-03 ▶ IV. urtea ▶ 902. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Eskualdeko immigrazio tasa EAekoaren erdia da

**AZTERKETA** ▶ Tolosaldeko etorkinen egoerari buruz egindako diagnostikoa aurkeztu dute Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuek; besteak beste, hezkuntza, enplegua, euskara eta etxebizitza aztertu dituzte ▶ 2

LEITZA ▶

## Ehoziri lanzaleen topaleku

200 artisaubilduko dira Karrapera, Liño-putzu elkarteak deituta ▶ 7

L. GARCIA



## LAB: «266 langileren postuak kolokan daude papergintzaren sektorean»

**TOLOSALDEA** ▶ Paperalia, Galgo Paper eta Araxes enpresen egoera «larria» dela eta «erantzukizun zuzenak» daudela salatu du ▶ 6

IBARRA ▶

## Bost urteko kartzela zigorra adostu dute fiskaltzak eta defentsak Mindegiagarentzat ▶ 4

BIDEGOIAN ▶

## Dantza eta musika saioa eskaini dute haurrek

Eskolako ikuskizunaz gain, erakusketa ere izan zen ikusgai ▶ 6



Ipuin kontaketa instrumentuekin lagundu zioten irakasleari. e. e.



### Diseinu eta kreazioahalmenean oinarritutako heziketa

■ DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95  
20008 Donostia  
Gipuzkoa  
Tel: 843 910 873  
Fax: 843 910 875  
[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

IMMIGRAZIOA ▶

# Eskualdeko immigrazio tasa %1,74koa da, EAEan dagoenaren erdia

Tolosaldeko etorkinen egoerari buruz Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak aurrera eraman duen diagnostikoa aurkeztu zuten, herenegun, jendaurrean



Elena Egigurenek —erdian— aurkeztu zuen inmigranteek Tolosaldean duten egoeraren diagnostikoa. N. L.

sindikatuerekin—. Ondorioen artean, «baserrien etorkizuna etorkinen esku izango dela» aipatu zuen Egigurenek.

## Etxebizitza, arazo larria

Etxebizitza arazo sozial larrirenetakoa da gure gizartearen. Etorkinen kasuan, gainera, arazoa areagotu egiten dela ondorioztatzen du. Arrazakeria nahiz estereotipoak direla eta, etxebizitza bat alokairuan edota jabetzan eskuratzeko arazo larriak dituzte. Ondorioz, erroldatzeko trabak dituzte, «oinarriko eskubideak ukatzen zaizkielarik».

Lana egikaritzeko garaian informazio iturri ezberdinak izan ditu ardatz ikerketak; baretik, kuantitatiboa —Ine, Eustat, Udal errolda, Ikuspegi, Hezkuntza ordezkaritza, Inem, Ertzaintza eta erregistro zibila— eta, bestetik, kualitatiboa —etorkinekin elkarrizketak, bai eta eragileekin ere—. Diagnostikoa amaiarekin batera, ateratako emaitzekin hainbat proposamen ere plazaratu dituzte, «etorkizunean aurrekusi daitezkeen egoeren aurrean baliabideak izateko».

Hala, beharrezkotzat jo du Gizarte Zerbitzuetik immigrazio teknikariaren figura sortzea. Halaber, informazio-harrera bulegoa eta informazio baliabideak garatzea proposatzen dute. Elkarrekin ere «indartu beharko lirateke». Eta, nola ez, «sentsibilizazioa jorratzea oso garrantzitsua da».

## Inmigranteen ahotsa

Aztertutako alor ezberdin guztietan ere etorkinek euren iritzia eta usteak emateko aukera izan dute. Hala, eskarari buruz, «frustazioa, lanerako zailtasuna, borondatea eta gazte-lareren lehentasuna» aipatu dituzte. Justiziaren aldetik, aldiz, «mesfindantza» da nagusi haien artean. Hizkuntzarekin arazoak dituzten arren, osasuna «baliabide positibotzat» jotzen dute. Eta, «paperak lortzea» behar garrantzitsuenetakoa da lan duina izateko.

NOELIA LATABURU

Herenegun Agenda 21eko Aholkularitza Kontseiluak bilera burutu zuen, udaltxeko batzar aretoan. Hainbat puntu jorratu zituzten bertan; etorkinek Tolosaldean duten egoera aztertzen duen diagnostikoa aurkeztu izan zen horietako bat. Elena Egigurenek eraman du aurrera lan zabal hau, zeinean inmigratioari buruzko datu mordoa bildu dituen.

Eskualdean bizi den Europako Batasunetik kanpoko populazioa bildu du diagnostikoa; hau da, 29 udalerrietako informazioa. «Datuak oso aldakorrak dira», azaldu zuen Egigurenek hasieratik. Egun, Tolosaldean biztanleriaren %1,74a da etorkina, «Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) maila baino gutxiago». Hala ere, garapena gorakorra da; izan ere, 2000tik 2004ra bitartean hiru bider gehiago izan dira etorkinak eskualdean.

Txostenak alor askotan duden «zailtasunak» agerian utzi ditu. Orokorrean baliabide falta igerrri dute. Kultura aztertzerakoan, esaterako, kulturartekotasunean adituak diren teknikarien falta, diru laguntzekiko mendeotasun handiegia eta proiektuak egiteko zailtasunak sumatu dituzte. Hezkuntzari dagokionez, aldiz, harrera plan baten falta nabaritu dute. Enplegua ere aztertzen du diagnostikoa, lan eta gizarte munduratzearen alde diharduten entitateekin —Peñasal, Tolosaldea Garatzen, Inem, Tolomendi eta

aurka izan dira (%7a) eta 124 bertakoei (%93).

**Osasuna.** Erabiltzaile etorkinen handitzea.

**Egoera administratiboa.** 2004ean %30a ziren erroldatu eta erroldatu gabekoekin.

2005ean, berriz, %7a erroldatua, berriekin eta erroldatu gabekoekin.

**Gizarte Zerbitzuak.**

Erabiltzaileen gorakada.

**Etxebizitza.** Erroldatzeko trabak dituzte, oinarriko eskubideak ukatzen zaizkie eta.

## PROPOSAMENAK

**Beharrak.** Inmigratio teknikaria, informazio-harrera bulegoa, informazio baliabideak, elkarteak indartu eta sentsibilizazioa.

**Inmigratio plana.** Aniztasuna kudeatzeko estrategia, indar politiko eta gizarte ekintzaileen inplikazioa eta gizarte inklusioa.

ezagutzeko helburuz antolatzen dituzten ekintzetan parte-hartze eta sormen eskasa.

**Hezkuntza.** %1,90 ikasle atzerritarak, 2005-06 ikasturtean. %2,18 ikasle etorkinak 17 eskolatan. %18,47 etorkinen kopuru osotik. Ikasle etorkinetatik %54,55 eskola publikoan daude eta %45,45a pribatuan.

**Enplegua.** Gorakada egon da, gizonetako zailtasun handiagoa dute eta kualifikazio gabeko lanetan dihardute (geriatrian eta soldaduran). Tituluak homologatzeko zailtasunak dituzte.

**Euskara.** Matrikulen handitzea izan da. Denbora, dirua eta mugikoratsun handia dela-eta zailtasunak dituzte euskara ikasteko.

**Justizia eta segurtasuna.** 2005ean izandako 893 denuntzietatik 69 etorkinen

## DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA ▶

### DATUAK

**Zenbatekoa.** 45.194 biztanletik, 790 atzerritar erroldatuta (601 Europako Batasunetik kanpokoak eta 189 Europa, EEBB eta Kanada).

**Sexua.** 327 gizonetako (%54,40) eta 274 emakumezko (%45,59).

### Nazionalitatea.

Ekuadorrekoak 126, Marokokoak 118, Argentinakoak 49 eta kolonbiarrak 39.

**Udalerrika.** Tolosan 214 (%1,20), Villabonan 91 (%1,6), Zizurkilen 81 (%2,82), Ibarren 43 (%0,98), Alegian 26 (%1,57), Asteasun 22 (%1,63).

**Adina.** 25 eta 44 urte bitarteko 367 lagun daude (lanerako adina eta ugalketarako adina).

### AZTERTUTAKO ARLOAK

**Kultura.** Etorkinen kultura



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskaierak neurria



**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu



**Alokatzeko.** Pisua. Anoeta, Alegia, Amezketa eta Lasarten.  
**Alokatzeko (lokalak).** Fueros eta Laskorain kalean. Salgai (Tolosa).  
 Pisua Belate kalean. 75 m<sup>2</sup>.  
**Salgai (Tolosa).** Pisua San Frantzisko, 17. 140 m<sup>2</sup>. Garajea aukeran. Salgai (Tolosa).  
 Pisua Laskorain kalean. 5.-a. Salgai (Tolosa).  
 Pisua Larramendi kalean. 112 m<sup>2</sup>. Salgai (Garajeak).  
 Tolosako Leidorren eta Ibarren, karabana sartzeko moduko garajea.  
**Salgai (lokalak).** Tolosan Kale Nagusian.

**943 65 17 13 / 677 46 09 16**

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Tabernaria.** Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira.

### SALGAI

**Pisua.** Leitzan, 100 m<sup>2</sup>-ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuak deitu 699 46 13 65 telefono zenbakira.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** «Herriko jaiak ate joka dira. Zer da antolatzen duten egitarauaren baitan gustukoaren duzuna? Zer aldatuko zenuke? Zer sumatzen duzu garrantzirik?». Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

GIZARTEA ▶

# Transexualen egoera eta familia ereduak ardatz hartuta

Gay eta Lesbianen Harrotasun Egunaren harira, ekitaldi ugari asteburu honetan

**ESTI EZEIZA**

Hil honen 28a Gay eta Lesbianen Harrotasun Eguna ospatuko da. Horrela, honen harira, asteburu honetarako zenbait ekitaldi antolatu ditu Gehitu, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarteak. Egitarauaren aurkezpena atzo egin zuten Kultur Etxean; bertan parte hartu zuten Koldobike Mujika eta Jesus Estomba Gehituko Koordinatzaileak eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak.

Mujikak azaldu zuenez, Gehituko egoitza nagusia Donostian dagoenez, urtean zehar ekintza gehienak hiriburuaren egiten dituzte, eta egun hau aitzakiaz hartuta, hemendik kanpora ateratzeko aprobetxatuko dute. Horren adibide dira Tolosan egingo dituzten ekitaldiak.

Jokin Bildarratzen esanetan, «Tolosako Udalak eta instituzioek babesa ematen diote el-

karte honi». «Hau normalizazio prozesu bat baita, pixkanaka aurrera doana, konplejoak eta alde batera utzi». Bestetik, onartu zuten Gehituk urte askotan asko sufritu duen kolektibo bat ordezkatzeko duela, eta ixilpean lan handia egiten ari dela normalizaziorako». Koordinatzaileek garbi utzi zuten «giza eskubideez ari garela eta hauek bete beharra daude».

**Bi ardatz**

Prensaurrekoan agertu zuten, aurtengo ekitaldiak bi ildo nagusitan oinarrituko dira: alde batetik, joan den urtean, Ezkontza Legea onartu zen, eta Koldobika Mujika Gehituko koordinatzaileak aurkezpenean agertu zuenez, «aurrerapauso handia izan zen; hala ere, bide luzea dago egiteko». Atzo bertan, berriz, Genero Identitate Legea onartu zen Espainiako Ministroen Kontseiluan. Lege horrek jasotzen duenaren ara-



Jesus Estomba eta Koldobike Mujika Gehituko Koordinatzaileak, Jokin Bildarratz Alkatearekin. E. EZEIZA

bera, transexualen sexua eta izena onartuko da, genitalen ebakuntza egin beharrik gabe. Izan ere, transexual batzuk prozesu honetatik ez dute igarorahi, nahiz eta beraien sexualitatearekin identifikatuta ez sentitu. Erabaki hau «posibilitatza» ikusten dute Gehitukoek. Orain arte, kolektibo honek bizitu duen egoera eragozteko balioko baitu: hau da, prostituzioan-eta lan egin beharra.

Bestetik, jaiaren bigarren ardatza familia ereduaren planteamentu berria izango litzateke. Uztailaren Familien Nazioarteko Eguna egingo baita Palentzian (Espainia), Aita Santua ere etorriko delarik. Baina bertan familia eredu tradizionala bakarrik hartzen da kontuan, eta Gehituk hau aldatzea nahi du. Halabaina, joan den urtean onartutako legearekin gainontzeko ereduak ere baimendu

**EGITARAUA ▶**
**GAUR**

**11:30etik 14:00etara, bisibiltate autobusa Tolosan.** Beotibar ondoan mahai bat jarriko dute, musikarekin, eta jai giroan materiala-eta banatzeko. Urte askoan ezkutuan egon badira ere, badelako garaia kalean normalitatez ibiltzeko.

**17:45ean, Alegiako parrokiaren kontzertua.** Alegiako abesbatzak antolatuta, Gehituko abesbatza parte hartuko du, Hernanikoarekin batera, kontzertu bat eskainiz.

**BIHAR**

**19:00etan, antzerkia Tolosan.** Cristina Castillok antzezituta, *Ser o no ser... visible* antzezlan izango da ikusgai Tolosako Kultur Etxean. Hau emakumeen inguruko lan bat da, lesbianen ingurukoa.

ziren, eta orain «hauek normalizatzea ikuste lortu nahi da». Jesus Estomba, Gehituko Koordinatzaileak agertu zuen bezala, «errealitatean islatuak izatea lortu behar da. Sortu berez sortu baitira, eta hauek onartuta badaude ere, isla soziala behar dute».

SANJOANAK ▶

**E. EZEIZA**

Zehaztuta dagoeneko sanjoanetako zezenketetarako kartelera. Bigarren aldiz, Sarot enpresak antolatu du egitaraua. Oraingoan punta-puntako toreatzaileak bilduko dira Tolosako zezen-plazan. Cesar Rincon, Javier Conde eta Sebastian Castella bezalako izen ezagunak ariko dira Espainiako ganadu-etxe ospetsuenetako zezenak toreatzen. Antolatzailerik itzaropen handia dute egun honetarako, iaz emaitza onak lortu baziren ere, aurtun Euskal Herrian zezenketen zailtasuna finkatzea lortu nahi baitute.

Bestetik, joan den urtean izandako arrakastaren ondo-

## Puntako toreatzaileak aurtengo sanjoanetan

lazko arrakastaren ondoren, 24an berriro jokatuko da Errekortarien Txapelketa

**EGITARAUA ▶**
**EKAINAK 17**

**18:30ean.** Ganadu etxea: D. Isaias eta D. Tulio Vazquez. Toretzaileak: Denis Lore, Sanchez Vara eta Iker Javier Lara.

**EKAINAK 24**

**19:30etan, Zezen-**

**errekortarien 2. Lehiaketa.**

Ganadu etxea: Manuel Villau. Egungo espezialista onenekin.

**EKAINAK 24**

**18:00etan.** Ganadu etxea: Cesar Rincon, Javier Conde eta Sebastian Castella.



Herenegun egindako aurkezpeneko irudi bat. E. EZEIZA

ren, berriz ere Zezen-errekortarien Bigarren Lehiaketa ospatuko da San Joan egunean. Hau Gipuzkoan egiten den bakarra da. Oraingoan ere espezialista handienetakoak ariko dira zezenak nahastu eta mareatzeko. Erabiliko diren zekorrek

oraindik toreatu gabeak izango dira, eta ikusgarriagoa izan dadin, adarrak moztu gabe izango dituzte. Toretzaileen artean euskaldun bat ere izango da, Iker Javier Vara bizkaitarra, baita frantses bat ere, Denis Lore.

**iragarki laburrak ▶**
**LANPOSTUAK**

**Haur eskolak.** Haurren zaintzaile eta hezitzaile postuak bete behar dituzte. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Hurrengo deialdiak udaletarako eta ikastetxeetarako. Informazioa doan: 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.**

Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Udalek administrari laguntzaile postuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Bezeroen arreta.** Aireportuetarako

plazak libre. 943 31 37 82.

**Gidariak.** Eusko Jaurlaritzarako eta udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

**Udalak.** Lorezainak, elektrizistak, iturginak, administrari laguntzaileak, atezainak. Udaletarako postu horiek bete behar dituzte. 943 31 37 82.

**Sukaldariak.** Sukaldariak eta

sukaldeko laguntzaileak behar dira egoitza, eriebe eta ikastetxeetarako. 943 31 37 82.

**Lanpostuak.** Igeltsero, elektrizista, iturgin, pintore lanpostuak. Udaletarako plazak libre.

943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundia.**

Sukaldari laguntzaileak, obra zaindaria, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak behar ditu.

943 31 37 82.

## IBARRA ▶ POLITIKA

# Bost urteko kartzela zigorra adostu dute Mintegiagarentzat

Fiskaltzak eta defentsak lortutako adostasunagatik, erdira jaitsi ziren behin-behinean eskatutako kartzela zigorrak

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun epaitu zuten Jon Mintegiaga ibartarra Espainiako Auzitegi Nazionalan, eta fiskaltzak eta defentsak lortu zuten adostasunaren ondorioz, «ETAr laguntzea» leporatuta, bost urteko kartzela zigorra ezarriko diote.

Hasiera batean, lau egun irautekoa zen Jon Mintegiagaren eta beste zazpi euskal herritarren aurkako epaiketa, baina hasi orduko bukatu zen,

zigorren gainean adostasuna lortu baitzuten Juan del Moral fiskalak eta defentsako sei abokatuek. Fiskalak, behin-behinean eskatutako kartzela zigorrak erdira jaitsi zituen, tratua ondoz; izan ere, 136 urte eskatzen zuen, eta guztira 61 urteko kartzela zigorrekin lortu zuten adostasuna. Mintegiagaren kasuan, urriaren 1ean 4 urte beteko dira espetxeratu zutenetik, beraz, lortutako akordioarekin urtebeteko zigorra bete behar-



Jon Mintegiaga ibartarra. HITZA

ko luke. 15 egun barru kalean izango den epaiaren zain geratzen da orain.

Bestalde, Madrilera, epaiketa aretora joandako senide eta lagunaren artean, 35 lagun inguru bildu ziren epaituei babesa eskaintzera. Poztasuna agertu zuten, tratua berri izan zuten eta epaiketa bukatu zenean. Hala ere, polizia egindako «kontrol izugarria» salatu dute; halaber, «epaitegira hurbildu ziren hainbatengatik jasandako isekengatik eta oiuhengatik epaitegiko atzeko atetik atera behar izan genuen, eta, gainera, argazkilaria modu probokatzailean egon ziren lanean, argazki gehiago ez ateratzeko eskatu arren, jarraitu egiten baitzuten», gehitu dute.

Jon Mintegiaga ibartarra «indartsu eta tinko» ikusi zutela adierazi dute haren senideek; «egin zizkigun keinuen bidez, muxu bat bidali nahi izan zien ibartar guztiei eta bera bezala preso daudenei elkartasuna adierazi zien».

## IBARRA ▶

## Izaskungo jaien jarraipena asteburuan

Ekitaldien artean, Otaño eta Lasaren eta Olasagastiren arteko errebantxa izango da

I. TERRADILLOS

Pasa den igandean, Izaskundarrak nagusitu ziren sokatira lehiarekin ekin zieten Izaskungo jaietara, eta gaur, bihar eta etzi izango dute jarraipena. Hala, gaurkoan, 17:00etan, Otaño eta Lasa bikotearen eta Olasagastiren arteko aizkora errebantxa ikusteko aukera izango da; harria jasotzen Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza ariko dira eta, ondoren, ahari jokoa eta toka txapelketa egingo dute; 21:00etan, bertso-afaria izango da Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

Biharkoan, 12:00etan herri kirolak izango dira, Izaskun Urrietaren aurka; 14:30ean herri bazkaria egingo dute, Peñak eta Irazuk alaituta; 17:30ean, Etxabe Anaiak ariko dira; 18:30ean, helduen eta gazteen arteko sokatira lehia, eta ondoren, txerrikume harrapaketa eta korrika-apustua. Azkenik, 20:00etan, Etxabe Anaiak trikitilarien bigarren saioa izango da.

## LIZARTZA ▶

## 'Ina'-ren VIII. urteurreneko ekitaldiak, gaur eta bihar

I. TERRADILLOS

Zortzi urte bete dira Iñaxi Zerberio Ina lizartzarra Ertzaintzak hil zuenetik, eta asteburuan omenaldi ekitaldiak egingo dituzte ETako kide zena oroituz. Gaur, 12:30ean, Gernikan, eraildako tokian, haren omenezko ekitaldia egingo dute. Bihar, berriz, Lizartzan, 09:00etan Mendi Martxa egingo dute Axurdariora, 13:00etan, omenaldia monolitoaren aurrean, txalapartariekin, bertsolariekin eta dantzariarekin, eta 14:30ean, bazkaria egingo dute elkartean.

## IBARRA ▶ UDALA

## Arau subsidiarioak geldiarazteko sinadurak bilduko dituzte gaur

Eguerditik aurrera egingo dute bilketa plazan; asteazkeneko batzarreko jarrera salatu dute

I. TERRADILLOS

Gaur eguerditik aurrera Udala proiektuaren Aurkako Herri Plataformak arau subsidiario-

ak gelditzearen aldeko sinadura bilketa egingo du Ibarrra plazan. Azaldu dutenez, 400dik gora sinadura batu dituzte, eta gehiago lortu nahi dituzte on-



Asteazkeneko udalbatzarreko une bat. HITZA

dorengoa argudiatuz: «Gutxi batzuen artean diseinatu dituzte arauak, eragileei kontsultatu gabe; 700 etxe ez dituzte behar ibartarrek, eta 206 hutsak daude, gainera; ez da demografiaren ez eta zirkulazioaren azterketarik egin; ez da zerbitzuen anpliaziorik aurreikusen; lur erreserba gabe eta itxuraldatuta uzten du herria; ez da haurrentzat parkerik au-

rreikusten, eta lotarako herri bilakatuko da Ibarra».

Plataformakoek, bestalde, asteazkenean izandako udalbatzarreko jarrera «axolagabea» salatu dute. «Iradokizunen tartean, guk arau subsidiarioen harira aurkeztutakoak eztabaidatu gabe bozkatu zuten, eta gainera, PP, PSE eta EAko zinegotziek alde egin zuten interesik agertu gabe».



**TOLOSAKO INMAKULADA  
IKASTETXEA**

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza.
- Farmazia.

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak.
- Osasun Dokumentazioa.
- Gizarte Integrazioa.

### AURREMATRIKULA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA  
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

### Tolosaldeko Telefono

**Listin berria** egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Comunicacionen** eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure iaizko portada, ez nahastu!

Hala ere, bertan publizitatea egin nahi badezu, 943214141/ 439200887/439200889 deitu dezakezu.





## ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



**Txindoki udan.** Pintzelarekin egindako olio teknika erabili du lan honetan. Ikusten denez, herria ere barneratu du bertan. Maite Itsasok ikusten duen moduan islatzen du dena; ez du ezer ere asmatzen. Lazkao aldera jotzen du, hango ikuspuntua gustukoagoa duelako. N. URBIZU

## Txindokiri omenaldia, mihisean islaturik

Maite Itsaso Zabaletaren lanak dira jubilatuen tabernan ikus daitezkeenak, kolore ezberdinetako paisai berdintsuekin

## NEREA URBIZU

Alegian beste erakusketa bat ikusteko aukera dago: Maite Itsasoren margolanak daude ikusgai Jubilatuen tabernan. 11 koadro inguru daude, eta denetan natura landu du artistak: Errioxako bi paisai eta bi bodegoi kenduta, Txindoki, Aizkorri eta Lazkao mendia, mendiak daude irudikatuta.

Maite Itsaso nafar-tolosarrak —izatez Asartakoa da, baina Tolosan bizi da—, pintzelada zabala erabiltzen du, margo asko jartzen du mihisearen gainean. Askotan ere, paletare-

kin margotzen du, honek, nahi gabe ere, margo gehiago utzi.

Berak erabiltzen duen teknika olioia da, nahiz eta batzuetan akuarela ere landu. Aitortzen duen moduan «akuarela zailagoa da, hanka sartzen baduzu, ez du egindako lanak ezertarako balio, eta bota egin behar duzu. Olioak aukera gehiago ditu: asko zikintzen du, baina akatsak zuzentzeko aukera gehiago ematen ditu».

Duela 20 urte hasi zen Tolosako Kultur Etxean ikasten, aurretik marrazketa lantzen bazuen ere. Han jende adituarekin ikasi zuen: besteen artean,

Txitxi Orbegozo gogoratzen du. Urte asko badaramatza ere, ez da honetaz bizi, hau afizioz egiten baitu: «Honetarako denbora behar da, eta astean zehar beste lan bat duginontzat zaila da. Dena dela, saldu egiten ditut nire lanak».

**Margolanak aire librean**

Bere margolanak beti figurati- boak dira; hau da, abstrakzioa ez du lantzen. Beti aire librean margotzen du, modelo bene- takoa izanik. «Orain mendiak margotzen ditut, eta haien aurrean jartzen naiz margotzera.



**Ekaitza Txindokin.** Txindokiren bi ikuspegi. Zeruan erabiltzen dituen koloreak bereziak dira, efektua areagotzeko. Margolanak kalean egitea zaila omen da, batez ere, egun batetik bestera aldatu egiten delako, eta eguraldiarekin asko sufritzen delako. N. URBIZU



**Errioxa, Laguardia.** Hau da akuarela egindako koadroetako bat, eta paisaia oso desberdina da, Erribera aldeko lurralde bat islatzen baitu. Kolorearen trataera ere desberdina da, baita koloreak ere. Akuarela teknika oso zaila da Maite Itsasorentzat. N. URBIZU

Zailena bada ere, gehien gustatzen zaidana da. Arazoa hotza egiten duenean da: eskuak hoztu egiten zaizkizu eta ezin duzu behar bezala margotu».

Modeloa aurrean izateak bere konplikazioak dauzka: argia eta kolorea egun batetik bestera aldatu egiten da. «Egun guztiak desberdinak dira. Ni egun jarraietan joaten saiatzen naiz, eguraldia gehiegi aldatzen ez bada, beti ere. Egunaren argitasunaren arabera, kolore batzuk edo beste batzuk nahastu behar dituzu, baina beti zuk sortuak».

Maite Itsasoren arabera, ar-

gia da islatzen zailena. «Koadro bati begiratu, eta zerbait falta duela somatzen baduzu, argia da, ziu».

Haren koadroek Van Gogh ekartzen digute burura, pintzelada motarengatik, teknikarengatik, eta inpresionismoari hurbiltzen zaiolako. Dena dela, berak gustokoen duen margolaria Sorolla da, argiaren margolari bezala ezagutzen dena, alegia.

Hilaren 21a arte egongo da ikusgai Maite Itsasoren erakusketa Jubilatuen tabernan: mendiari omenalditxo bezala ere dei daitezkeena.

**Bridge**  
LEITZALDEKO HITZA

**UDAKO IKASTAROA**  
**UZTAILA 2006**

Haur, gazte eta helduentzat  
**FRANTSESA & INGELESA**

**FIRST eta ADVANCED**  
azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak

Talde txikietan • Orduetgia taldeen arabera

Pablo Gorosabel 2 - 1A • 20400 Tolosa  
943 65 00 70 • 680 222 526  
www.bridge2005.com • bridge2005@bridge2005.com

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**  
2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**  
▶ **uneoro** informazioa eskura [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA**  
**eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA**

txartel berriarekin abantailak!

**beherapenak agurretan, eskeletan**  
**eta iragarki laburretan**  
**besteak beste**

**egunean 0,18 zentimoren truke etxean**

## BIDEGOIAN ▶ KULTURA

Dantza eta musika  
uztartuta haurren saioan

Haurrek egindako emanaldiaren une bat. ESTI EZEIZA

## ERREDAKZIOA

Bidegoiango 11 haurrek antzezlan eskaini zuten atzo arratsaldean herriko eskolan. Hain justu, eskolaz kanpoko orduetan egiten dituzten jokak erakutsi zituzten 30 lagunek ikusle goaren aurrean.

Dantza eta musika izan ziren protagonista eta irakasle

batzen gidaritzapean hainbat joko egin zituzten. Esaterako, musika klasikoaren doinura mugitu edo irakasleak Edurne Zuriren ipuina kontatzen lagundu musika instrumentuekin. Ikusle goak ederki txalotu zituen haurren emanaldi bakoitza. Bestalde, eskulanean erakusketa ikusgai izan zen atzo egun guztian zehar.

## VILLABONA ▶

## 'Santa', Behar-Zana elkarteko ohorezko bazkide

Behar-Zana elkarteak bere 60. urteurrena ospatuko du asteburuan. Ekitaldien artean, Jose Ignacio Santamaria *Santa* elkarteko ohorezko bazkidea izendatuko duite biharko errebote partidaren atsedendaldian. Ekitaldiak gaur hasiko dira: esku pilotako entredamenduak (10:00), buruhandiak eta erraldioak (18:00); joko garbi partida (18:30); meza (19:00); afaria bazkideentzat (20:00); taborrada Incansables txarangarekin (23:00) eta dantzaldia (02:30ak arte). Bihar, txistularien diana (09:00), Errebote partida (11:30) eta gobiautentzako bazkaria (14:30).

## ANOETA ▶

## Pentsiodunentzat eta jubilatuentzat bazkaria

Urtero bezala, Udalak herriko jubilatuta eta pentsiodun guztiei eskainiko die bazkari bat Bentaldeako bodegoian San Joan egunean, hilaren 24an, 13:30ean. Bertara gonbidatuta daude ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: Anoetan errotaturik egotea, jubilatuta edo pentsioduna izatea, 60 urtetik gorakoa izatea (hauek barne). Izen-ematea udaletxean egin behar da hilaren 16a baino lehen. Bestalde, Alkartasuna Biltokiak hil berri diren Javier Arrospide eta Maria Puy Sastre bazkideen alde meza aterako du, gaur, Anoetako parrokian, 19:00etan.

## urteurrena ▶



## EKONOMIA ▶

## «266 langileren postuak kolokan daude papergintzan»

Papelaria, Galgo Paper eta Araxes enpresen egoera «larria» dela eta «erantzukizun zuzenak» daudela salatu du LABek



Pello Iriarterekin eta Mari Mujikarekin —eserita, ezkerretik hasita lehenengo biak— batera, Papelaria, Galgo Paper eta Araxes enpresetako LAB sindikatuaren ordezkariak izan ziren prentsaurrekoan. I. GARCIA

## IMANOL GARCIA

Papelaria, Galgo Paper eta Araxes enpresen egoera «larria» salatu zuen Tolosaldeko eta Goierriko LABek atzo Tolosako egoitzan egindako prentsaurrekoan. «Hiru enpresetako 266 lanpostuak kolokan daude», zehaztu du Mari Mujika bi eskualdeetako LABeko arduradunak.

Enpresa horiek ixteko zorian egotearean atzean «erantzukizun zuzenak» daudela azaldu du Mujikak. «Ez ditugu orain publiko egingo zeinek dituzten erantzukizunak, baina bai azalduko dugu erantzukizun pertsonalak eta instituzionalak daudela». Mujikak zehaztu zuenez, «enpresetan ez dute irtenbiderik ematen eta langile askok kale gorrian amai dezakete. Instituzioek ezin dute ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu».

Hurrengo egunetan mobilizazioak egiteko asmoa du LABek. «Beste sindikatuekin hitz egin nahi dugu eta erantzun bateratua eman», adierazi

zuen Mujikak. Tolosaldea Garatzen eta Goieki osatzen duten udalekin ere egoteko asmoa azaldu zuten: «Ikusi nahi dugu zein den beraien jarrera egoera honen aurrean». Egoeraren «larritasuna» azpimarratu zuen beste behin Mujikak eta paper-fabriketako langileez gain, enpresa horiek lana ematen dieten beste enpresek ere eraginak izango dituztela azaldu zuen. «Kaldereri txikietan eta papera manipulatzeko duten enpresak oso egoera zaillean geldituko dira».

## «Gestio txarra»

Pello Iriarte LABeko papergintzako bi eskualdeetako ordezkariak hiru enpresen egoera zein den zehaztu zuen. Legorretan dagoen Papelaria enpresak egun 151 langile ditu eta Etxezarreta (Legorreta) eta Salvadora (Villabona) enpresen fusiotik sortutakoa da. «Bi enpresa horietan egindako gestio oso txarra izan zen, profesionalizatu gabea. Aurreko egiteko fusioa beharrezkoa

zela azaldu zuten eta 25 langile kaleratu zituzten orduan». Egungo enpresari «gestio txarra» salatu zuen eta gogoratu «Eusko Jaurlaritzak akzioak dituela» enpresa horretan.

Andoain dagoen Galgo Paper enpresan 81 langile daude egun eta Leizaran (Andoain) eta Tolosana (Tolosa) paper fabrikaren fusiotik sortutakoa da, «50 langileren kaleratzearekin», zioen Iriarterek. «Orain 23 langile kaleratu nahi dituzte eta gainerakoentzat ez dago proiektu garbirik». Iriarterek gaineratu zuenez, «arau subsidiarioen baitan egindako Tolosana lurtzoru aldaketa enpleguari emandako laguntza bezala saldu zuen Tolosako Udalak, baina ez da bete esandakoa».

Araxes enpresa itxita egon ondoren berriro ireki zen 18 langilerekin eta egun 34 ditu. Enpresariak «konkurtso prozedimendua sartu du eta langileak hiru hilabetetan langabekizira bidaliko dituzte. Enpresariak berak azaldu digu ixteko asmoa duela», zioen Iriarterek.



## ALEGIA

INGELESA FRANTSESA ALEMANA

2006-2007 IKASTURTERAKO TALDE BERRIAK OSATZEN HASI GARA.

INFORMAZIOA: 943 655726

## Alkizako ostatua

Gaur  
itxia  
ezkontzagatik

LEITZA ▶ KULTURA

# 200 ehoziri lanzale elkartuko dira biharko Leitzako topaketan

Liño-putzu elkarteak antolatuta, III. Ehoziri Lanzaleen Topaketa egingen dute; lanen erakusketa ere jarriko dute

JAIONE ASTIBIA

Bihar ehoziriaren *kiski-kaskata*-koak jabetuko dira Karrapeaz: Euskal Herri osotik etorritako 200 ehoziri lanzale elkartuko dira hor; *mundillo* deritzon burko modukoaren gainean, horratzen inguruan hariak alde batera eta bestera ehozirikin bihurrituz, zeinek puntu konplexuagoak eginez, ehoziri lan dotoreago eta ikusgarriagoak osatuz.

Leitzako Liño-putzu ehoziri lanzaleen elkarteak antolatu du topaketa, bi urtetik behin egiteko ohitura hartuta, aurtengoarekin hirugarrenez egingen dutena. 8-10 lagun aritzen dira urtean zehar langintza ho-



Duela 2 urteko topaketan, ehoziri lanak egiten. JAIONE ASTIBIA

rretan, ehozirikin parpailak, puntillak egiten dituzte, teknika berriak ikasi, puntu berriak;

eta bestelako oihalgintza teknika ere lantzen dituzte: gurutze-puntua, patchwork-a, han-

danger-a... Hain zuzen ere, urtean zehar egin dituzten lanak erakusgai jarriko dituzte Karrapeko taberna modura ezagun den lokalean, topaketak irauten duen bitartean.

Hala, bihar goiz osoan zehar, 10:00etatik 14:00etara bitartean, «16 herritako ehoziri lanzaleak etorriko dira», zehaztu dute antolatzaileek, «adin guztietakoak, gainera: «Besteak beste, 4 ume, Bakaikuko amonailoba batzuk tartean». Espainiatik ere heldu dira, Gijondik «hauek materiala saltzera etorriko dira: hariak, tresnak... eta bidenabar inguruak ezagutzera ere bai», esan dutenez eta Palentziatik, «hauek ere ehozirikin lanean ariko dira». Ehozirikin lanean, erakusketa, materialaren salmentaz gain, zozketak ere egingen ditu Liño-putzuk, 13:30ak aldera; berriak egindako hainbat lanena.

Topaketa parte hartuko duten ehoziri lanzaleek, «100en bat bilduko gara», zioten, bazkaria izanen dute Landan, ondoren, Eguzkiñe Zabaleta trikitilariak alaituko duelarik.

Eguneko ekitaldi guztiak Karrapean egitekoak dituzte. Eguerdialdi eragozpenik jarriko balu, Amazabal pilotalekuan egingen omen litzukete.

IRURA ▶

## 'Goiza pasa' udaleku irekian parte hartzeko deia

Hil honen 26ean hasi eta uztailaren 28ra, goizetan; begiraleak ere behar dituzte

ERREDAKZIOA

Hilaren 26etik uztailaren 28ra, antolatuko ditu Irurako udalak, 2 urtetik 12ra bitarteko herriko haur eta gaztetxokentzat *Goiza pasa* udaleku irekiak. Astegunetan, 10:00etatik aurrera, hiru orduko saioak izanen dituzte. Denboraldi osorako 70 euro ordaindu behar dira. Edozein moduz, txanda motzagoak ere prestatuko dituzte, matrikulan ere eragina izanez. Hilaren 9rako eman behar da izena.

Bestalde, begiraleak ere behar dituzte saio hauetarako, 19tik aurrera lanean has-teko. Interesatuak hilaren 8a baino lehen aurkeztu behar dute curriculuma kultur bulegoan edo liburutegian.

LEITZA ▶ HARRI-JASOTZEA

## Urrutia, Agirre lagun, finaleko txartelaren bila

Gaur bertan dute finalaurrekoa Nabaridasen

ERREDAKZIOA

Arabar Errioxako Nabaridasen jokatu dute gaur arratsaldean, 18:30ean zehazki, Berria mailako Urrezko Harri-jasotzaileko azken finalaurrekoa: Josetxo Urrutia leitzarra izanen da lehiakideetako bat. Agirre abadiñoarra du bikote, eta Lertxundi-Astorki arerio.

Borroka estua izanik, 100 kiloko bolarekin txanda libreko saioan erabakiko dela espero daiteke; izan ere, zilindrikoarekin Urrutiak Astorkiri atera diezaiokeen alde, kubikoarekin Lertxundik Agirreri janen diolako iragarpenak egin dituzte adituek.

Irabazleek Eizmendi-Telleria zain izanen dituzte finalerako.

LEITZA ▶ KIROLAK

## Talde barneko azken partidak Plazako Pilota Txapelketan

ERREDAKZIOA

Sailkapenentarako jokatzeko ari diren ligaxkan, azken partidak jokatu dituzte gaur, Plazako Pilota Txapelketan.

Hauexek dira bikoteak: Lazkano-Buldain / Alduntzin-Sagastibeltza; Makazagatarrak / Telletxea-Zabaleta; Bengoetxea-Gartzia / Zeballos-Iriarte; Tximista-Bordazpi / Sagasti-



lazio txapeldun aurrelaria. J. A.

beltza-Arburua; Aldaia-Olano / Anduezatarrak; Zubillagatarrak / Lazkano-Alduntzin.

LEITZA ▶

## Astelehenean aparteko udalbatzarra egingen dute

ERREDAKZIOA

Heldu den astelehenean, 21:00etan, aparteko batzarrerako deialdia egin du Leitzako Udalak, puntu bakarreko gai-zerrendarekin: «3. poligonoko 161. lurzatiari dagokion Hirigintza Planaren aldaketa puntualaren behin-behineko onespenez».

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**hilberria ▶**

**Maria Aizpuru Iraola**

Herenegun hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Zu sortu zinen enbor beretik sortu gara zuhaitz-ardaska gazteak. Erakutsitako indar eta duintasuna izango dira gure bide laguna.

**Zure bilobak**

URRESTILLAN, 2006ko ekainaren 3an

**hilberria ▶**

**Maria Aizpuru Iraola**

Herenegun hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Euskalherriko tristura soineko beltzen joskura txori negartz bete da eta umorez hustu da. Enaidiazue freskura hura eskutik eskura izarren salda urdine edanda bizi naiz gustora.

**Zure senarra, seme-alabak eta sul-errailak**

Haren animaren alde otzituz bat eskatzen dizuzte eta arren ator zaitzetezela, GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko 22:30 ETXERDIETAN, Urrestillako JUAN DE UNENAREN paroki etxean egingo den haletara. Aldez aurretik mila esker.

oharra ▶ Gorputz laguntza bere familia artean Urrestillako kanposantura egingo da. Hilbela Azeitilko Tanatorioan egingo da 11:00ak arte.

URRESTILLAN, 2006ko ekainaren 3an

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Uzturpe ikastolaren festa, 10:30etik aurrera.  
**Tolosa.** Gaur, 9-10an eta 16-17an salgai sanjoanetako Koadrila Eguneko txartelak Orbela, Meskal eta Ikatza tabernetan. Ostiraletan, 19:00etatik 21:00etara jaso daitezke, eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.  
**Tolosa.** Bihar, Laskorain Ikastolaren festa, Usabalen.  
**Villabona-Zizurkil.** Jesusen Bihotza ikastolaren jaia. 14:00etatik aurrera, Txerminen (Villabona).

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Maite Ibasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.  
**Tolosa.** *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskulturak, Aranburu Jauregian.

**MUSIKA**

**Villabona.** Interruptusen antzerki eta musika nahasketa. 19:30ean, Gaztetxean.  
**Zizurkil.** Sorkun eta Rafa Rueda. 22:30, frontoian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.  
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina.

**Goiko irrattia (107.0 FM)**  
13:00. *Kornerra* magazina.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Etorkizuna eraikitzen

**TOLOSA-ZIZURKIL** ▶ Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da etzi; horren harira, Aste Berdea ari dira egiten Tolosan eta Zizurkilen, sentsibilizatzeko xedearekin



Energiari eta klima aldaketari buruzko erakusketa ikusgai da egunotan Errotan, Tolosan. L. MONTES

**ERREDAKZIOA**

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da hilaren 5a, etzi. Egun hori aitzakizat hartuta, Aste Berdea egiten ari dira Tolosan eta Zizurkilen. Herri bakoitzak bere egitaraua prestatu du, baina helburu bera dute: sentsibilizazioa; «gaurko egunetik hasi behar delako etorkizuna eraikitzen». Bi herrietan, hala, klima aldaketari buruzko erakusketa izango da ikusgai: aste honetan Tolosan dago, Errotaren kanpoaldean (argazkietan), eta astelehene-tik hilaren 11 arte Zizurkilen bisitatu ahal izango da.

Bestalde, Tolosan mural pintaketa egingo dute gaur goizean, Zuloaga Txikin. Eta arratsaldean filma eskainiko dute Kultur Etxean. Bihar, VII. Uzturrera igoera izango da.

Zizurkilen, etzitik aurrera izango dira ekitaldi gehienak: aste osoan, *Tokiko Agenda 21ean murgilduz* erakusketa jarriko dute Pedro Mari Otaño eta San Millan eskoletan. Astelehenean bertan, 09:00etan abiatuta Ogi Zuriko errotodantik, Plaiaundiko padurara irteera antolatu dute. Eta, egun berean, motor elektronikodun autoen erakustaldia izango da, Pedro Mari Otaño plazan.

Hilaren 7an *Lurra eta biok etxean* eta *hirian* haurrentzako joko interaktiboa prestatu dute. 18:00etan hasiko dira jolasean. Atxulondo kultur etxean. Azkenik, hilaren 9an, *Lurra eta biok eskolan* eta *aisialdian* joko interaktiboa aritzeko aukera izango dute txikienek, ordu eta leku berean.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
Zorionak eta ondo pasa. Lagunen partetik.



**ZORIONAK**  
Amaia eta Igor.  
Zorionak eta ongi pasa eguna. Koadrilaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Maria Goenaga (Alkiza). Gaur 85 urte. Aurtene zorionik berorea ta urte askotako munduko amonik politenai.



**URTE ASKOAN**  
Loinez Peña Olazabal (Tolosa). Gaur 2 urte. Zorionak ebekoen eta bereziki Jon Ander eta Aneren partetik.

**hitza** Harpidedunen txokoa

**Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu**

- Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

**Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!**

**PARTE HARTZEKO:**  
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza • Araba etorb, 5 • TOLOSA**  
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

**1 TENERIFERA BIDAIA**  
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

**LAUTREK bidaia agentzia**  
koroa kalea, 52 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21  
Faxa: 943 67 39 12  
zure neurirako bidaliak antolatzen ditugu

**2 OTORDU EDERRA**  
2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa  
Tel.: 943 88 28 93

**bete zure datuak**

Harpidedunaren kodea.....

Izena.....

Abizenak.....

Helbidea.....

.....

Herria.....P.K.....

Telefonoa.....

Pelektronikoa.....